

AGIRRE ASTEASUKOAREN ERACUSALDIAC. SERMOIA MINTZAIRA-EKINTZAREN PRODUKTU HISTORIKO GISA

Tesiaren egilea: M. Arantzazu Ozaeta Elorza

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Tesi-zuzendaria: Luis Mari Larringan Aranzabal

Tesiaren laburpena:

Tesiaren helburua izan da Agirre Asteasukoaren *Eracusaldiac* (1850) obra —sermoiak— ezaugarritzea, betiere sermoia hizkuntza-jarduera gisa hartuta. Ideia nagusia sermoiak enuntziatio-baldintza sozio-historiko jakinei loturik daudela erakustea izan da. Bestela esanda, komunikazio-egoera jakin batek enuntziatioaren egitura mugatzen duela linguistikoki eta diskurtsiboki (Voloshinov, 1929/1992; Bajtin, 1929/1995, eta Bronckart, 1996, 2005).

Bost modulu egin dira sermoien azterketari ekiteko. Modulu horiek corpusa deskribatzeko hipotesiak dira.

Lehen kapituluak, idazlearen koordinada biografiko eta espazial-kronologiko oinarritzeko batzuk ematen dira: sermoien egilearen inskripzio soziala.

Bigarren moduluan, sermoien testu-egiturari ekiten zaio. Agirre Asteasukoaren lan desberdinek trilogia bat osatzen dute. Sermoien egitura-eskema zentzu-esanahiaz osatzen da.

Hirugarren moduluan, sermoiak ilokuzio-pragmatikaren arabera ezaugarritzen dira.

Laugarren moduluan, pragmatikara jotzen da eta ziur asko tesiaren ekarpen nagusia egiten. Interakzionismo sozio-diskurtsibotik abiatuz, bi objekturen gaineko azterketa egiten da: pertsona-izenordainak eta berbaldi ekarria (*discurso referido*, *discours rapporté*). Horien azalpena hiru mailatan egiten da: hizkuntza mailan, interakzio mailan eta interdiskurso mailan. Kontuan hartzen dira azter-unitateok sermoietan duten presentzia, maiztasuna, banaketa eta konfigurazioa. Argi azaltzen da pertsona-izenordainak ez direla neutroak instantzia diskurtsiboekiko. Bergauza gertatzen da berbaldi ekarriarekin ere: hala zuzeneko berbaldiak nola zeharkakoak interes eta asmo jakinen arabera dantzatzen dute. Horrela, aipugintza bazterrezinezko gertakaria da sermoia taxuz deskribatuko bada.

Azken modulua erretorikaz ari da. Laburra da, baina teoriaren berrikuspena eskaini nahi du.

Corpusari dagokionez, pentsatzen dugu Agirre Asteasukoaren *Eracusaldiac* obra, mardula izanik (1500 orrialde inguru) eta instituzio eklesiastikoak balidatu eta ontzat emandako lana, corpus egokia dela instituzio baten «aurpegi linguistikoa» ezaugarritzeko.

